

**ctb**

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

PRENTSA OHARRA

BGPk datorren asteartean, abenduak 1, jarriko du berriro martxan Metro Bilbaoren Mamarigako funikularreko zerbitzua

- **Hasieran ezarritako eguna baino hilabete eta erdi lehenago.**
- **Konponketen kostua 1.375.000 euro da guztira, eta aseguru etxeak ia osorik ordainduko du.**

Bilbon, 2015eko azaroaren 27an.

Bizkaiko Garraio Partzuergoak (BGP) ia guztiz amaituta dauzka Mamarigako kanoia zaharberritu eta egokitzeko obrak. Metro Bilbaoren Santurtziko geltokiko sarbide hori itxi egin zen ekainaren 14an, barruan sutea izan zelako. Suak kalte handiak eragin zituen instalazioetan. Abenduaren 1etik aurrera, behar diren egiaztapenak egin eta gero, Santurtziko bizilagunek berriro erabili ahal izango dute funikular automatikoa, dohainik, herriko erdialdetik Mamarigako goi auzorainoko 400 metroko malda gainditzeko. BGPk guztira 1.375.000 euro inbertitu ditu konponketan, eta aseguru etxeak kostu ia osoa bere gain hartu du.

Iragarritako eguna baino hilabete eta erdi lehenago zabalduko da funikularra. Txosten eta lizitazio gehienak, materialen fabrikazioa eta abian jartzea presako prozeduraren bidez egin dira. Administrazio prozesuetan ahalik eta eperik laburrenak ezarri dira indarra duen legezketasunaren barruan. Horrela uste baino arinago zabaldu ahal izan da funikularra eta erabiltzaileek eragozpen gutxiago jasan behar izan dituzte. Funikularraren ordezkariak Bizkaibusek zerbitzua erabili ahal izan dute, alegia, ibilbide bera egiten zuen autobusa.

BGPk, Metro Bilbaok, Santurtziko Udalak eta Aldundiak uztailean akordioa egin zuten, mugikortasun murriztuko pertsonen (adinekoak, ume kotxea daramaten erabiltzaileak edo gorpil aulkian dabilenak...) Bizkaibusek A-3136 linean dohainik bidaiatzeko aukera izan zezaten Mamarigako sarbidea itxita zegoen bitartean. Zerbitzu hori 11.650 bidaiarik erabili dute, uztailaren 20an hasi zenetik. Santurtziko Udalak guztira 566 txartel banatu ditu mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzat; txartel horiek baliorik gabe geratuko dira asteartetik aurrera.

KONPONKETA BATEN KRONOLOGIA

Ekainaren 14an Mamarigako sarbideko gela tekniko batean piztu zen suak sarbideko ekipamendu gehienak hondatu zituen neurri handiagoan edo txikiagoan: geltokiko haizagailuak, bi jasogailuak eta tunela. Gainera, txikizio handia egin zuen instalazio elektriko eta elektronikoetan zein komunikazio eta elikadura sistemetan.

Sua itzali eta barrunbearen lehenengo deskontaminazioa egin ondoren, teknikariak kanoiraino iritsi ahal izan ziren instalazioen garbiketa orokorra egiteko. Ezbeharraren



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

norainokoa aztertu eta kalteen behin-behineko peritu-azterketa egindakoan, beste garbiketa bat egin zen, espezializatuagoa eta sakonagoa, osagaiak eta instalazioak garbitu, erabat deskontaminatu eta saneatzeko. Kanoiko txoko guztietako hezetasunaren eta giroaren kalitate-kontrol zorrotza egin zen.

Garbiketa lan horiek bi hilabete iraun zuten (irailera arte). Hamahiru espezialistak osatutako lantaldeak piezaz pieza garbitu edo ezabatu zituen erretako edo kutsatutako materialen arrasto guztiak. Bien bitartean instalazioetako teknikariek eta perituek kaltetutako elementuen ebaluazioa egin zuten; horrela zehaztu ahal izan zen zeintzuk mekanismo berrerabili ahal izango ziren eta zeintzuk aldatu beharko ziren. Suteak eragindako kalteak ebaluatzeko behin betiko txostena irailaren 18an amaitu zen.

Ordutik aurrera BGPK presako prozeduraz lizitatu zituen kontratuak, instalazioak lehenbailehen zabaltzeko asmotan. Funtsean, instalazioen garbiketari erantsi zitzaizkion osagaien fabrikazioa, suak hondatutako elementuen aldaketa eta instalazio guztiak zerbitzuan jartzea. Azkenik, bost hilabete eta erdiko lanen ostean Mamarigako sarbideko ateak berriro zabalduko dira datorren asteartean, funtzionamendu probak egin ondoren goizeko 05:50etik aurrera eta ezbeharra gertatu baino lehenago izandako baldintza berberekin.